

Gailegoak Euskal Herrian

Egunkaria, 1994-08-16: 2.

Bilboko udaletxeak argitaratzen duen hilerokoan ("Bilbao", abuztua) irakurri berria dut euskaldunontzat interes handia duen "Gallegos en Euskadi, vascos en Galicia" artikulua; neroni erbesteratuta urte luzetan ibilia naizelako bereziki hunkitu nau eta euskal abertzale bezala interesatu. Batetik, ezagutzen dut historian zehar Gailegoak, Euskaldunak eta Catalanak, herri bezala aspalditik izan ditugun lotura politikoak, GALEUZKA izenpean; Bartzelonan 1923an sortu zen entzute handiko elkarte, berehala Primo de Rivera diktadoreak jarraikaratu; hamar urte gero "Compostelako paktua" dela medio berritua eta exilioan sentipen eta indar handiz (1940-1950) penintsula osoa konfederazio batera bultzatzeko asmotan onartua. Gaurkoari begira, berriz orain hamar urte, 1984an, sortu zen "Hirmandade de Centros Galegos de Euskadi", batzuk gazteak zirela etorriak, sortzaile izan den Pepe Casal bezala. Jakin nahi duenarentzat: 74.000 gailego bizi dira gure artean, gehienak, 54.000, Bizkaiko hamar zentrotan: Barakaldo, Sestao, Santurtzi, Ondarroa, Ermua eta Bilbon. Hemen, Arraiz mendian 140.000 metro karratutan zabaldu dute joan den ekainean Klub handia izango denaren lana. Honek Caracas gogarazten dit, zeren eta han ere martxa handiz egin baitute gauza bera. Aipa dezagun hemen Unibertsitate mailan ere, Deustukoan, Xoxe Estevez irakasleak sortu zuela Galizieraren ikastaroa. GALEUZKA gogarazten digu honek!